

AKTIBAZIO KOMUNITARIORAKO POLITIKA ESTATALAK

# Bizilagun Sareak

**Aktibazio komunitarioko  
proposamen politiko estatalak.**

Gizarte Lan eta Soziologia Saila  
*Deustuko Unibertsitatea*



**ETORKIZUNA ERAIKIZ**  
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA



# Aurkibidea

<b>Aktibazio komunitarioko proposamen politiko estatalak .....</b>	<b>3</b>
1 Britainiar “Big Society” delakoa.....	3
2 Herbeheretar “Gizarte parte-hartzailea”.....	5
3 Italiar “Secondo Welfare” delakoa .....	6

# Aktibazio komunitariorako proposamen politiko estatalak

## 1 Britainiar “Big Society” delakoa

Britainiar Big Society delakoa erreferentziazkoa bihurtu da europar politikagintzan aktibazio komunitarioko paradigma estrategiko estatalen artean. Planteamendu hori 2010. urtean sortu zen ingeles koalizio liberal-kontserbadoreak garatutako proposamen gisa, “Big Government” delakotik “Big Society” delakora trantsizioa egite aldera. Beste era batean esanda, proposamena deszentralizatzen bideratuta dago, boterea, erantzukizuna eta erabakimena estatu mailatik tokiko gobernu mailara aldatuz (Evans, 2011). Trantsizio horrek berarekin dakar sistema sozial edo komunitarioa mardultzea, eta ondorioz, aparatu publikoa maskaltzea.

Big Society-ak nagusuki planteatzen du komunitateek, gobernu maila lokalago edo deszentralizatuagoen bitartez, kontrol handiagoa hartzea beren aurrekontuen gainean eta ondasun eta zerbitzu jakin batzuen kudeaketaren gainean, eta gainera, komunitateko kideak izatea beren ingurune horretan bertan non inbertitu erabakiko dutenak. Deszentralizazio-proposamen horrek, britainiar politikagintzatik lokalismo gisa definitzen dutenak, zera adierazten du: boterea, funtzioak eta baliabideak kontrol zentralizatutik kudeatzaileetara itzultzea, esaterako tokian tokiko instituzio edo komunitateetara (Evans, Marsh eta Stoker, 2013).

Alde horretatik, ehun asoziatiboak, antolakunde boluntarioek, hirugarren sektoreak edo kooperatibismoak garrantzi berezia hartzen dute, eta are gehiago, komunitateen beraien ahalduntzea beharrezkoa da. Hein horretan, planteamendua identifikatutako hiru estrategia nagusietatik abiatuta zehazten da: komunitatearen ahalduntzea, gizarte-ekintzaren sustapena eta zerbitzu publikoen zabalpena (Lowndes eta Pratchett, 2012:30).

Big Society-aren proposamenak, instituzio mailan funtzionamendu-aldaketa bat izateaz gain, barne hartzen du gure gizarteetako balioen eraldaketa sustatzea, azken buruko

helburutzat hartuta norbanako eta taldeetan sortzea bizitza zibikoan parte hartzeko beharrezkoa. Evansek arrazoitzen duenez (2011), Big Society-ak hiritargo aktibo baten existentzia sustatu behar du eta ahalegindu behar da komunitate-zentzua, herritartasun-zentzua eta betebeharrak zibikoaren zentzua elikatzen.

Civil Exchange-k egindako txostenean (2015) azaldutakoari erreparatuta, Big Society-aren diskurtsoan proposatutako eta barneratutako helburua gizartea batzea bazen ere, proiektua abian jarri zenetik bost urte igarota zenbait datuk gizarte zatituago bat erakusten dute, non, gainera, boterea ez den ez banatua izan eta ez komunitateei itzulia izan. Proposatutako esperientziatik eratorritako eragozpenen berri ematen du parte-hartzaileek beraiek beren tokian tokiko ingurunean eragiteko ahalmenari buruz duten jarrera sinesgogorrek eta txosteneko datuetan agerian geratzen denez orokortua den politikari buruzko kamusadak.

Ereduaren zabalpena handiagoa izatea eragotzi duten gabezia gehiago ere atzeman dira, eta horien artean dago proposatutako planek komunitateen edo pertsonen benetako arazo eta beharrei baino hein handiagoan erantzun izan diotela gobernuaren beharrezko edo helburuei (Smith, 2011). Horrek indartu egin du antolakunde eta komunitateek planteamenduaren aurrean izan duten uzkurtasuna. Hein horretan, sortu den ikuspegi negatiboa onbidertzeko gobernuak erakutsi duen desgaitasuna nabarmena da, eta horrek berarekin ekarri du planteamenduaren garapena berrartzeko ezintasuna.

Nolanahi ere, esperientzia honetatik ikaskuntza positiboak ere atera litezke. Alde horretatik, nabarmentzekoa da komunitateetako batzuek erakutsi duten gaitasun handia baliabideak mobilizatzeko, eta hala, tokian tokiko esperientzia desberdinak burutu ahal izan dituzte. Eta horrez gain, nabarmentzekoa da, halaber, boluntariotzaren hazkundera eta gazteenen atxikimendu soziala; izan ere, 16 urtetik 24rako adin-tartean boluntariotza bikoiztu egin da 2005etik (Civil Change, 2015).

lido horretan, eztabaida bat zabaldu da, komunitate jakin batzuek, batez ere hondatuenean edo baliabiderik gutxien dutenek, zer-nolako gaitasuna duten aginte-uhala hartu eta Big Society-ak eskatzen dituen ardurak beren gain hartzeko (Wyler, 2011). Horri dagokionez, autore batzuek diote –esaterako, Chanan eta Miller (2011)– komunitateen benetako funtzioa ez dela ez zerbitzu publikoen kontrola hartzea eta ez estatuaren ardurak ordezkatzea, baizik eta zerbitzu publikoen osagarri izan eta koproduzitu egin behar dituztela.

Big Society-aren planteamendua analisi askotan hartu izan dute egiturazko doikuntzetarako politika neoliberalak aurkezteko bide berritzaile samar eta politikoki zuzena balitz bezala (Fantova, 2014), baina beharrezkoa da aintzat hartzea behar

bezala eta eraginkortasunez funtzionatzeko, estrategia hauek ezartzeko hedatzen diren mekanismoak erronka handi bat direla hala ikuspegi teknikitik nola teorikotik. Planteamendu honek behar bezala funtzionatzeko aintzat hartu beharreko alderdietako batek zerikusia du bai estatuaren eta bai gizarteko balioen ezinbesteko eraldaketarekin. Alde horretatik, bi figura horiek ondo egokitu daitezten aurkezten ari garen paradigmaren helburuen betetzeko asmora, beharrezkoa da bien arteko hurbilketa bat, bien arteko elkarlana ahalbidetzeko.

## 2 Herbeheretar “Gizarte parte-hartzailea”

Herbehereetako Willem erregeak 2013an eman zuen diskurtso politikoak eztabaida latza eragin zuen europar estatuaren zutabe bereizgarrietako eta oinarrizkoenetako baten inguruan: ongizate-estatua. Erregearen diskurtsoak herbeheretar ongizate-estatuaren eraldaketaren aldeko apustua egin zuen, gizarte parte-hartzaile baterantz jotzeko aldaketaren alde.

Eraldaketa-proposamen hori pertzepzio batek zedarritzen du: herbeheretar ongizate-estatua -gastu publikoaren hazkundeak, bizi-itxaropenaren luzatzeak eta biztanleriaren zahartze demografikoak ezaugarritua dena- sostengaezina da bere jarraipena ahalbidetuko duten erreforma esanguratsuak egin ezean.

Testuinguru horretan sortu zen “Gizarte parte-hartzailearen” paradigma, zeinak defendatzen eta oinarri hartzen dituen herritarren parte-hartzearen eta esku-hartzearen kontzeptuak, halako moduz non herritarrek erantzukizun handiagoa hartuko duten beren gain, ez soil-soilik bere ongizateari dagokionez, baizik eta gizarte osoaren ongizateari dagokionez ere bai. Beste hitz batzuekin esan genezake herritarrek subjektu aktibo gisa agertu behar dutela gizarteari onura ekartzeko beren betebeharrak betetzeko eta, era horretan, herritar ona bihurtzeko aurre-eskakizunak betetzeko (Delsen, 2016; Schinkel, 2010). Gisa horretan, bere helburu nagusiak hauexek dira: batetik, gizartea sendotu edo ahaldundu; eta bestetik, eskubide sozialak eraitsi eta pertsona bakoitzak arrisku sozial bakoitzaren aurrean bere gain hartu behar duen erantzukizunarekin ordezkatu.

Gizarte parte-hartzailearen eredurako aldaketaren giltzarrietako bat da laguntza publikoen onuradunen jarreraren eraldaketa sustatzea, eta horrekin batera, laguntza izaera bera ere aldatzea; izan ere, jada ez dira gehiago hartuko eskubidetzat, eta laguntzak bihurtuko dira, azken helburutzat hartuz pertsonari laguntzea dagoen premia-egoeratik ateratzen. Gisa horretan, onuradunak, dagokion prestazio hori ez galtzekotan,

obligazio batzuk izango lituzkete bete beharrekoak.

Paradigma honen praktikan, beste giltzarrietako bat estatuaren jarrera da, hizpide dugun gizarte parte-hartzailearen eredua bultzatze aldera. Alde horretatik, beharrezkoa da estatua herritarrengana hurbiltzea, ateak zabalduz eta bere partaidetza aktiboa erraztuz ordura arte berari ukatuak zitzaizkion gobernantza-esparruetan. (Cornwall, 2002; Newman eta Tonkens, 2011).

Egia da proposamen honek 2013ko irailean plazaratu zenetik kritika ezberdinak jaso izan dituela, lotura estua dutenak gizarteak, batez ere, kalteberatasun handiena duten kolektiboek, estatuaren aldetik suma dezakeen abandonu-sentimenduarekin (Koster, 2014). Jasotako beste kritiketako batek zerikusia du aurreko paragrafoan aipatu dugun desarautzearekin, hain zuzen, nolahi ere estatuak rol garrantzitsua jokatzen jarraitzen duelako praktika informalak arautzen eta formalizatzeko ahaleginean (Koster, 2014).

“Gizarte parte-hartzailea”, batzuen iritziz, herbeheretar gizartearen bertsio hobetua da (Koster, 2014) eta praktikan jartzean ateratako ondorioek erakusten dute ondo funtzionatzen duela, baina, hala ere, egia da zaila dela partaidetzaren betebeharra bisualizatzea kalteberatasun handieneko gizarteko talde edo auzoetan, eskakizun hori betetzeko beharrezkoak diren erremintak edo erreminta nahikorik ez duten horietan. Alde horretatik garrantzitsua da aintzat hartzea eredu honek subjektu “ez parte-hartzaileetan” izan ditzakeen ondorioak (isolamendua, mendekotasuna...), ondorio horiek, epe luzera, beraiekin ekar baitezakete aldatu nahi zen ongizate-sistemaren ezaugarriak erreproduzitzea.

### 3 Italiar “Secondo Welfare” delakoa

Italiar ongizate-estatuaren gutxiegitasunari buruzko eztabaida publikoa handituz joan da 2008. urtetik. Herrialdean azken bi hamarkadotan egin izan dituzten erreforma ugariak gorabehera, italiar ongizate-ereduaren ezaugarri nagusia bere jarrera familiazalea da, hau da, nagusiki familia-egituren aldeko apustua egiten du, nahiz eta, gaur egun betetzen duten rol horretan, horiek jada zaharkituak geratu diren. Hala, italiar testuinguruan egiaztatuta geratu dira gastu sozial desorekatua, biztanleriaren zahartzea, langabezia eta lan-baldintza eskasak, eta familia-nukleo gero eta murriztagoak (Maino, 2015).

Alde horretatik, italiar ongizate-estatuak efektu horiek moteltzen jarraitzen badu ere, arrazoizkoa da galdetzea ea etorkizunean ere hori egiten jarraitu ahal izango duen. Testuinguru horretan, hain zuzen ere, sortzen da eta planteatzen da familiaren eta

zaintzaren inguruan herrialdearen berezko politikak birplanteatzeko beharra.

Paradigma-aldaketaren beharra herritarren beharrizan eta eskaeren eta zerbitzu eta programa desberdinak sortzen ari diren erantzunen artean dagoen arrakala gero eta handiagoak eratoritzen da. Beste era batean esanda, eskaeraren aniztasunari egokitzeko abiadura handiagoa exijitzen diote eskaintzari. Bestalde, ongizate-estatuaren antolamendu-eskaintzaren desegokitasunak berarekin dakar antolamendu-eredu berrien sorrera, indarrean dauden horiek osatzeko. Gainera, oraindik indarrean dauden muga finantzarioak direla-eta pentsaezina da ongizate-estatu publikoaren zabalpena. Hau da, kontua ez da gastu publikoa gastu pribatuarekin ordezkatzea, baizik eta baliabide gehigarriak mobilizatzea gero eta handiagoak diren beharrizan eta espektatibei erantzuteko.

Ongizate-estatuaren krisiaren testuinguru honetan bertan sortzen da “Secondo Welfare” delakoa, aktibazio komunitarioko politika sozialen diseinurako proposamen erreferente gisa eta ongizate-estatuaren eraberritzea ahalbidetuko duen paradigma-aldaketa sostengatu eta sustatzeko alternatiba gisa, hura desegiteko mehatxuen aurrean. Italiar proposamen honek bereziki nabarmentzen du gizarte zibilak eta hirugarren sektoreak ongizate-hornitzaile gisa duten papera. Hala, paper berebizikoa jokatzen dute beste ezaugarri batzuek ere, hala nola deszentralizazioak eta lokalismoak. Hain zuzen ere, estrategia honek jarraitzen duen bideetako batek ongizatearen desmerkantilizazioa defendatzen du; ematen duten arazoibidearen arabera, harremanen bihurkaritasun batez hornitutako gizarte zibili baten alde apustu eginez, zeina eite komunitarioko eta sozietarioko subjektuz osatua den, hala nola familia bera, hirugarren sektoreko antolakundeak eta tokian tokiko gainerako erakundeak (Fantova, 2014).

“Secondo Welfare edo bigarren welfare” izendapenak ez du aditzera eman nahi sistema berri baten sorrera aurrenekoa ordezkatzeko moduan, baizik eta haren osagarri izango den sistema paralelo baten sorrera. Beste era batean esanda, lehendik dagoena indartzen duen bigarren hornidura maila bat, halako moduz non hemendik sortzen diren zerbitzuek lehenengo welfare-a estaltzera iristen ez den espazioak osatuko bailituzkete. Hala, ongizate-estatuaren zutabeak (hezkuntza, osasungintza, gizarte-segurantza eta gizarte-zerbitzuak), lehenengo welfare-aren eskumenekotzat hartzen dira, eta hori dela-eta enborreko zerbitzuak maila horretan hornituak izan behar dira. Eta aldiz, gaur egun agertzen diren arrisku eta beharrizan guztiak eta lehenengo welfare horrek jorratu ezin dituenak, bigarren welfare-an konponduak izateko modukoak dira. Esaterako, mendekotasunaren gaian, lehenengo welfare-ak beharrizan hauei erantzungo lieke: pentsioak, osasun-arreta, ostatu-ematea edo etxez etxeko zerbitzuak, besteak beste. Eta bigarren welfare-ak, aldiz, prestazio horiek

osatuko lituzke, hain berebizikoak edo funtsezkoak ez diren beste asistentzia-zerbitzu batzuekin, esaterako babes eta laguntza programa, aisialdi, formazioko eta abarrekoekin.

Arlo publiko eta pribatua elkartzearen inguruan antolatutako gobernagarritasun-eredua da, bai bere dimentsio sozialean eta bai irabazi-asmoaren dimentsioan. Hau da, lehenengo welfare-aren protagonista bakarra estatua bada, bigarren welfare-an hark bere titulartasuna galdu du eta beste protagonista sorta bat batu zaio: tokiko gobernua (eskualde eta udalak), sektore pribatua, hirugarren sektorea eta gizarte zibila (elkarteak, sindikatuak eta abar), eta horiek lankidetzaren dinamika sortzen dituzte eta zerbitzu jakin batzuen horniduran ekarpena egiten dute. Hala:

*“Bigarren welfare-a lau esferetako subjektuen arteko lankidetzaren estuago batetik sortzen da, beraz, eta are gehiago, izaera askotariko stakeholder-ak ere tartean sartzen ditu: enpresak, sindikatuak, erakunde aldebikoak, fundazioak, aseguru-emaileak, funtsak eta hirugarren sektoreko antolakundeak” (Maino, 2015:113).*

Ilde horretan, esfera publikoak tokiko administrazioen bitartez esku hartzen du, horiek baitira lankidetzaren publiko-pribatuaren sustapenean rol zentrala beren gain hartzeko izendatuak, eta era berean, baliabide gehigarrien identifikazioan zentratu behar direnak (Maino, 2015). Rol hori, beraz, bi alde funtsezkotan zentratu behar da: batetik, berrikuntza eta estrategia berrien sorrera erraztea, eta bestetik, lehendik dauden eskubide sozialak bermatzea.

Secondo Welfare-aren barruan gizarte-berrikuntzako neurriak biltzen dira. Hala nola, finantzabide ez-publikodun babes eta inbertsio sozialerako programak, lehenengo welfare-ari gehitu eta harekin uztartzen direnak. Gisa horretan, lehenengo welfare-ari dagokiona izaera publikodun eta bete beharrekodun gisa definitzen da, eta bigarren welfare-ari dagokiona, aldiz, pribatu, hautazko eta osagarri gisa. Hau da, arazoei emandako erantzuna badirudi babes sozialeko programen konbinazio batean oinarritzen dela, baina estatuak finantzatuak izan beharrez, horiek eskaintzeaz arduratzen dena eragile ekonomiko eta sozialen multzo zabal bat da, sarean konektaturik eta tokian tokian sakon errotua (Maino, 2015).



Gainera, komeni da nabarmentzea eskema honek eskaintzen dituen gaitasunetako bat dela esku hartzen duten protagonistek malgutasun handiagoa dutela; izan ere, horrek ahalbidetzen die welfare tradizionalaren edo lehenengoaren zurruntasuna gainditzea, eta hain zuzen ere, testuinguru hau aproposagoa da berrikuntzarako eta komunitate jakin baten beharrezkoetara modu zehatzagoan zentratuz dauden ekimenak abian jartzeko. Esperientzia hauetan, saiatzen dira komunitatea eratzen duten subjektuen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako politikak eta zerbitzuak ezartzen, sektore pribatutik eta hirugarren sektoretik sustatutako hobekuntza-ekintzak gauzatu, esku hartze horietan administrazio publikoaren babes instituzionala dutelarik. Ildo horretan, Secondo Welfare-a aipatutako eragile horien arteko harremanaren bidez ezartzen diren komunikazio eta adostasunerako espazioen bidez eratzen da. Elkarren arteko harreman horrekin lotu nahi dutena da, beraien artean lurralde-itunak zehaztea herritarren babes soziala ziurtatzeko.

Hortaz, Secondo Welfare-aren eraketak agerian jartzen du ongizate-estatuaren krisiaren kontsolidazioa dela-eta, arlo horretan zeresana duten eragileen arteko komunikaziorako espazioen gabezia dela-eta, eta administrazio publikoaren aldetik zerbitzuen zentralizazioa gauzagarri egiteko atzemandako eragozpenak direla-eta, beharrezkoa dela komunitatearen eremutik arriskuaren transferentzia birpentsatzeko eta bere gain hartzeko estrategiak diseinatzea eta irtenbide alternatiboak bilatzea.

